


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/11/06) Hurrengo saioa: 2018/11/20	Auzolana	Hilak 3an burutu berri den auzolanaren balorazioa egin da. Bukatu gabeko lanak zerrendatu dira.	Lan talde bakoitza antolatuko da lanak bukatzeko
	Jubilatuen eguna	Jubilatuen egunean egin behar diren ekintzak burutzeko dena "loturik" dagoela ziurtatu da. Bertaratu ezin direnentzat herriko produktuekin osaturiko loteak egitea adostu da.	Egunaren balorazio bat egin.
	Itsasoko mapa eta bertako toponimia	Badirudi Itsasoko mapa egiteko esperotako dirulaguntza ez dela jasoko Jaurlaritzatik. Inolaz ere, maparen komenigarritasuna ikusita, Udaletik finantzatu da. Lehenik, aurrekontua eskatu eta ondoren, aurretik genuen mapari hobekuntzak egin, toponimia berriak txertatu (etxebizitzak, enpresak,...), ibilbideak markatu,...	Aurrekontua eskatu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/11/13) Hurrengo saioa: 2018/11/27)	Kantu afaria	Trikitaliarekin adostuta dauden 20 abestiek liburuxka egin dugu, eta kopiak atera Afaltzeko izena eman behar dela gogoraraztea aipatu da.	
	Euskaraldia	Euskaraldiko "prestaketa tailerra" oso arrakastatsua izan zen. Euskararekiko pertzepzioak bildu ziren, estres linguistikoaren kontzeptua landu, eta asertibitatez jokatzeko gomendioak jaso. Oraindik izenematea irekita badago ere, 40tik gora gaude izena emanda. Euskaraldiak iraungo duen 11 egunetan oharrak, aholkuak eta irudiak iritsiko direnez, watsapez zabalduko ditugu eta Ostatuko sarreran ere jarriko dira. Horretarako erakusketetako parrillak erabiliko ditugu Abenduaren 3a (Euskararen eguna) astelehena izanik, bezperarako ze ekintza prestatu dezakegun aztertzen aritu gara: herritarren testigantzak jasotzea, adib.	Abenduaren 2ko ekimenerako herritarrekin hitz egin
	Herri Batzarra	Aurreko batzarrean herritarrek zaborrei buruz esandakoak errepasatu dira eta falta diren urratsak nola eta noiz eman aztertu da (errefusaren kontenedorea txartel bidez irekitzen dela jarri, konposta komunitarioa Alegin...)	Txartel berriak eskatu, Gabirikoekin adostu ondoren, eta aldi berean, informazioa zabaldu (etxeetara eta garbigunean bertan jarritz) Pixohialan kontenedorea eskatu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/11/14) Hurrengo saioa: 2018/11/28	Udaletxeko obra	Udaletxeko sarrerako obren informazioa jaso da. Atea zabaltzeko lekua egin da eta bertatik kendutako harriak jaso egin dira. Atea inguratzen zuten harlosa zabalak birkolokatu egingo dira eta ate-gain berria antzeko harriarekin estaliko da Eskailera berria eta ranparen zorua egiteko plaza eta plazatik beherako eskailerako material berdina erabiliko da	
	Auzolana	Oraindik auzolanean erabat bukatu gabe geratu zirenak erreparasatu eta taldetxoak egin ditugu: <ul style="list-style-type: none">- Kizkitzako panela: ostegunean jartzekotan geratu zen- Atsusain pareko hesiak eta langak: ostirala-larunbata artean- Epelde aldean geratu ziren bi posteak eta Atinzabalgo langaren zutabea masaz hartuko dira eta Sarriegitxiki eta Okinarri bitarteko seinaleak jartzen jarraitu ostiralean	
	Udal tasak	Gaur egun ditugun Udal tasak Gipuzkoako beste herri batzuetakoekin alderatu ditugu eta Itsasokoak, orokorrean, nahiko baxuak direla ondorioztatu dugu. Azaroaren bukaerarako erabakita izan behar ditugu 2019ko Udal tasak	Aztertzen jarraitu